

UDALTZABARRAREN AKORDIOA

2018-12-11



Esp.kodea: 2019DPRE0001

Gaia: 2020 URTEKO UDAL AURREKONTUA
Hasiera eguna: 2019/03/25

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2019ko abenduaren 3an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2020 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA (2019DPRE0001).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aurkako 9 boturekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak), Barne Antolaketaren batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Alkateak aurkeztutako 2020 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, eta, gero, Barne Antolaketaren batzordean adostutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorratzeko. Bestalde, nahiz eta desegite erabakia ez duen hartu oraindik Udalak, KABIA foru elkartean sartu izanagatik, 2020 urterako ez da prestatu Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontua, ez baitu jarduerarik izango.

Proiektuari emendakinak aurkezteko emandako epean ez da aurkeztu inolako emendakinik, baina ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak udal taldeko ordezkariak hainbat proposamen edo eskaera egin ditu, eta batzordeburuak konpromisoa azaldu du aspektu horiek aztertzeko abenduko osoko bilkuraren aurretik.

Horretaz gain, gobernu taldearen aldetik zuzenketa eta aldaketa proposamenak aurkeztu dira, gastu gehikuntza garbia suposatzen ez dutenak (IDAE programaren mailegua itzultzeko mankomunitatera ordaindu beharreko partida murrizten da, 2021 urtera arte ez delako itzultzen hasi behar IDAE2 programako laguntza, partida bat sortzea Emakume Txokoaren kokaleku berria aztertzeko, eta kreditu globalaren partidako zenbatekoa handitzea). Zuzenketa horiek batzordean aztertu eta botaziora jarri eta gero, horiek onartu dira EAJ-PNVko ordezkariaren eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin, EH-BILDU udal taldeko ordezkariaren kontrako botoarekin, eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak udal taldeko ordezkariaren abstentzioarekin; horren ondorioz, aurrekontu proiektuan sartu dira.

Kodea	H19/00951	Udala	ARRASATE
Data	2019/abe./10	CUDO	000.0055.AAAAHDEH.E.g2qC
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAHDEHE.g2qC		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019DPRE0001

Gaia: 2020 URTEKO UDAL AURREKONTUA
Hasiera eguna: 2019/03/25

Onartutako aldaketak proiektuan sartu eta gero, Barne Antolaketaren batzordean aztertu da 2020 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2020KO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAK, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **hogeita hamalau milioi zortziehun eta hogeita bederatzita mila eta ehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hogeita bost zentimo euro (34.829.173,25 €)**, eta aurrekontu horretan sartuta dago **UDALAREN BERAREN AURREKONTUA soilik**.

Aipatutako proiektua aztertu eta gero (partidak, exekuzio arauak eta konpromiso kredituen eranskinak barne), Barne Antolaketaren batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EAJ-PNVko udal taldeko eta PSE-EEko udal taldeko ordezkarien aldeko botoekin, EH-BILDU udal taldeko ordezkariaren kontrako botoarekin, eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak udal taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, eta Udaleko Osoko Bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA, aurrekontuaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2019ko abenduaren 10ean.

O.E.

Alkatea

Kodea	H19/00951	Udala	ARRASATE
Data	2019/abe./10	CUDO	000.0055.AAAAHDEH.E.g2qC
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAHDEHE.g2qC		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

